


Digitalizazioaz



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



PAULA ESTÉVEZ

Gogoratzen dut nire bizitza Internet aurretik. Gaur egun ez nuke jakingo zelan itzuli horra. Ez nuke nahi. Gogoratzen ditut ikusten genizkion demokratizaziorako aukerak. *Kultura pop*-ularra ere *cyberpunk* mintzo zitzaigun. Sareen sarea gure ortzi-muga zabaltzeko eta munduaren askapenerako tresna izan zitekeen edo, behintzat, hala zioen Hacker Manifestuak.

Informatika eta teknologia ez dira honezkero txip eta ordenagailu kontua, gure bizimoduen errotiko eraldaketa baino.

Atomizazio sozialeranzko joera lehenagotik ere badator, baina "*connecting people*" zioen iragarkitik hona gero eta deskonektatuago gaude. Gero eta jende gehiagori beldur edo lotsa ematen dio beste pertsona batekin aurrez aurre hitz egiteko edo, besterik gabe, telefono deiak egiteak. Adinkeriaz akusatu ninduen batek, horretaz hausnartu beharko genukeela esandakoan. *Enpin!*

Pantailek ezin dute ordezkatu aurrez aurreko harremana. Enpatia pizten duten ispilu-neuronen lana eten eta oztopatzen dute. Ingurua bera disruptiboa ei da. Animaliak, antza, bata bestearen aurrean egon behar gara enpatia lantzeko.

Enpresa teknologiko handiak jaun eta jabe dira. Mundu mailako enpresarik ba-

liotsuenak GAFAM akronimopean daude. Google, Amazon, Facebook, Apple eta Microsoft dira, besteak beste. Ez begiratu hauteskunde emaitzetara; munduan nork agintzen duen jakiteko, burtsetara egin behar da so.

Ez dago *digitalizazio* berba aipatu ez duen politikaririk, zertaz ari diren ondo jakin barik. Bien bitartean, administrazioetako webguneak informazio zaharkituz usteltzen dira. Ez da hori digitalizazioaren helburua, ez da informazioa helaraztea edo herritarrei bizitza erraztea, kontrakoa baino. Administrazioak gero eta herritar gehiago aparte uzten dituen burokrazia modu berria topatu du bertan.

Baina hortik harago, digitalizazioa gainbehera atzeratu nahi duen kapitalismoaren azken txanpa da.

Promesa handia da, kostuak merketzen (lanpostuak suntsitzen) jarraitzeko: errobotizazioa, lan harremanak deuseztatzen dituzten aplikazio eta plataformak, algoritmoek zuzendutako erantzun automatizatuak...

Negozio habi berria ere bada, meatzaritza, industria, komertzioa, garraioa eta zaborren negozioak elikatzen ditu eta. Kontsumismo, esplotazio eta estraktibismoa berdez margoturik.

Baina digitalizazioa edozein koloreta-

koa izan liteke, berdea izan ezik: mineralen sukarra, lurraldeen deuseztatena, birziklatu ezin diren zabor metak... eta energia gastua. Bai, hodeia ez da zerbait immateriala, elkarrir konektatutako zerbitzariak baizik. Interneteko trafikoak sorrarazten dituen negutegi efektodun gasak hegalaldi zibil guztien bestekoak dira; AEBetako datu-zentroen hozte sistemek egunean 1.700 milioi litro ur gasatzen dituzte.

Azkenik, herritarren kontrolerako tresna ezin hobekoak dira. Baina, adi, kontrol zuzenaz lor daitekeen gain, etengabean zelaturik gaudela jakite hutsak jendarte osoa konformismora eta sumisiora darama.

Hau ez da XXI. mendeko ludita bihurtzera deia, pantailen atzean jokatzeko den guztiaz hausnartzera eta pentsamendu kritikoa lantzera baino.

Erresilientzia –modako beste berba bat– harreman, laguntza eta elkarlan humanoan dago, ez smartphone batean. Horixe da ehundu beharreko sare soziala. Besteak egoa elikatzeko tresnak baino ez dira, ego hori puzten duten *like* eta *hate*-en dopamina txuteetara ahalik eta denbora gehien engantxaturik egon gaitezen. Ni-a baino ez da existitzen bertan, ni-a eta Platonen kobazuloko itzalak pantailan proiektaturik. ●